



## Ekitaldiz beteriko Kultur Astea egingo dute

**LEITZA** ▶ XXIX. edizioan mendi irteera, hitzaldiak, mahai inguruak eta ESAIT eguna egingo dituzte

**IRAUPENA** ▶ Ekainaren 1etik 10era antolatu ditu ekitaldi guztiak Leitzako Kultur Taldeak ▶ 7

**LEITZA** ▶

### Rekondo ez da sailkatu helduen mailan

Arria V.ak irabazi zion igandean; dena den, gazteen finalerdian lehiatuko da ▶ 4

**TOLOSA** ▶

### Arianna Puelloren kontzertua larunbatean

Bonberenean izango da emanaldia; etzirako bertso saioa antolatu dute ▶ 5



## Baserritarren eguna, festarako aitzaki

**TOLOSALDEA** ▶ Asteasun, Zizurkilen eta Iruran ospatu zuten atzokoan San Isidro eguna; herri kirol probak izan ziren nagusi ▶ 6

**Anoeta egin behar dugu**

*Herriarekin topaketa*

**Markel Olano,**  
Gipuzkoako Aldun Nagusiakoa hautagaitza EAUK

**Fidel Azpiroz,**  
Anoetako alkatezarako hautagaitza EAUK

Maiatzak 17 oteleguna  
Anoetako plazan, arribaldeko Trianan



# Boto zuri erabakiorrak

Eskualdeko hiru udalerrietan ordezkaritza urria duten alderdiak bakarrik aurkeztu ahal izan dira

IMANOL GARCIA

**D**atozen udal hauteskundeetan egoera berezia gertatuko da Tolosaldeko hiru herrietan. Orain arteko udal hauteskundeetan ordezkaritza urria izan duten alderdiek aurkeztu ahal izan dituzte hautagaitzak. Abertzale Sozialistak eta EAEk aurkeztutako zerrendak baliogabetu ondoren, Iruran PSE-EE eta PP alderdiak bozkatu ahal dira, eta Lizartzan eta Elduainen PP bakarrik. Zinegotzirik izateko baliozko botoen %5a lortu behar dute Iruran eta Lizartzan. Elduainen, 250 biztanle baino gutxiago dituenek, nahikoa du PPK boto bakarrik izatea alkatez lortzeko. Iruran eta Lizartzan, beraz, boto zuriek inoiz ez bezalako garrantzia dute. Boto zuriak balizkoak dira eta PPK edo PSE-EEK ez gobernatzeko aukera bakarra izan daiteke.

Iruran herenegun arratsaldean herri batzarra egin zuten egoera aztertzeko. Marimi Ugalde egungo alkate eta EAEren zerrendaburuak adierazi zuenez, PSE-EEren eta PPren zerrenda osatzen dutenak «kanpokoak dira eta Iruran beti egon dira bertakoak Udalean». Ugaldek boto zuriaren aukeraz baliatzea proposatu zuen. Hori horrela, eta PSE-EEK orain lau urteko 27 botoak lortuz gero, 514 boto zuri beharko ziren PSE-EEK ordezkaritza ez izateko Udalean. PSE-EEK eta PPK ez badute ordezkaritza lortzen Udalean, egungoak jarraituko du funtzioan.

Ugaldek egun herrian dauzen «proiektu garrantzitsuak» aipatu zituen, besteak beste, Ikastolaren eraikin berria, hori aurrera ateratzeko 2008an egingo diren kilometroak eta arau ordezkatzaileak. «Hori guztia dugu jokoan», adierazi zuen alkateak. Herri batzarrean bildutakoek bat egin zuten proposamenarekin eta etzira-ko prentsaurrekoa egitea proposatu zuten, 20:00etan, plazan. Bertan ahal den herritar gehienak parte hartzeko eskera egin zuten eta gizarte eragileei ere gonbita egiteko asmoa azaldu zuten. Herri batzarra amaitu eta gero elkarretaratzea egin zuten plazan *Herriak du hitza* lelopean.

Lizartzaren kasuan egun alkate den Joseba Egibarrek boto zuria eskatu du PPK alkatez lortzeko. Kasu berdina gertatzen den beste herrietan ere berdina egiteko eskatu du. Herriko ezker abertzaleak ez du argi oraindik zer erabaki



Iruran elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek. I. GARCIA

hartuko duen. Horretarako herri batzarra deitu dute biharko, 20:00etan, udaletxean. Ezker abertzaleak adierazi dutenez, «Egibarrek izan duen jarrera baino okerragoa ezingo dute izan PPKok. Ez batzar irekirik, ez eskatu dizkiogun bilerririk ez du egin».

## Boto bat alkatetz lortzeko

Elduainen egoera are bereziagoa da, boto bakar batek alkatez PPK eman diezaiokelako. 2003ko udal hauteskundeetan PPK ez zuen botorik jaso, baina 2005 EAEko hauteskundeetan bi boto eman zizkioten. Bitor Muñagorri egungo alkate (EAJ-EA) lana dela eta ez da aurkeztu eta zerrendarik ez da osatu «jendeak giro txarrak nahi ez duelako». PPren zerrenda bakarrik egotea «egoera absurdoa» iruditzen zaio.

Bere aldetik, Elduaingo ezker abertzaleak oraindik ez du erabaki zer jarrera hartuko duen hauteskundeetan. Horretarako herri batzarra deitu dute larunbatean, 15:00etan eta «herritar guzti-guztiak» gonbidatuta daudela adierazi dute.

Gipuzkoako PPK alkatez lortzen duen udalerrietan hartu egingo duela adierazi du. «PPk Lizartza eta Elduaingo alkatez lortzea ez da normala eta logikoa, baina ez da normala ere Gipuzkoako zerrendak kanpoko jendeekin bete behar izatea ere, mehatxuak eta gure kontrako presioa jasotzen baitugu», gaineratu du. Gipuzkoako herri guztietan zerrendak aurkeztearen «konpromisoa» hartu zutela eta egoera honen ardura ez dela berea, «baizik zerrendarik aurkeztu ez dutenena», esan dute, eta PNVri egotzi diote ardura hori.

Bere aldetik, Gipuzkoako PSE-EEK ez du adierazpenik egin nahi izan gai honen inguruan. EAKo Onintza Lasak egoera honek ez duela «ez hanka ez buru» azaldu du eta Alderdi Legearen ondorio dela gaineratu du. EAK boto zuria emateko eskatu du. Ezker Batuak «egoera zentzugabea» dela esan du eta hiru udalerrietako herritarrek «hala nahi badute boto zuria emateko aukera» dutela azaldu du. Aralarreko Inaki Irazabalbeitiak, berri, Abertzale Sozialistak eta EAE alderdien zerrenden baliogabetzeak «modu injustu eta antidemokratikoan» egin direla esan du eta hiru udalerrietan boto zuria emateko deia egin du.

## 2003KO DATUAK >

### 1. ELDUAIN

**Boto emaileak guztira.**

160 (%84,21).

**Abstentzioa.**

30 (%15,79).

**Boto zuriak.**

3 (%1,88)

**Baliogabeko botoak.**

104 (%65)

**EAJ-EA.**

52 (%32,5)

### 2. IRURA

**Boto emaileak guztira.**

596 (%69,38).

**Abstentzioa.**

263 (%30,62).

**Boto zuriak.**

19 (%3,19)

**Baliogabeko botoak.**

353 (%59,23)

**EAJ-EA.**

176 (%29,53)

**PSE-EE.**

27 (%4,53)

**PP.**

21 (%3,52)

### 3. LIZARTZA

**Boto emaileak guztira.**

405 (%77,14).

**Abstentzioa.**

120 (%22,86).

**Boto zuriak.**

11 (%2,72)

**Baliogabeko botoak.**

253 (%62,47)


**EAJ-EA.**

131 (32,35%)

**PP.**

10 (2,47%)

## Boto emaileen artean





## EGUNEKO EKITALDIAK ▶



A. IMAZ-N. URBIZU

## EAEren auto karabana eta PPren mitina

**N. Urbizu** ▶ Herenegun iluntzean EAEk Ibarren auto karabana egin zuen herriko kaleetan zehar. Honetan bozka alderdi ezkeriar eta abertzaleari emateko eskatu zuten, «hauteskunde demokratikoen alde».

Bestalde, atzo eguerdian Tolosako Triangulon PPK mitin bat egin zuen. Bertan, Tolosako alkategai aurkeztu den Angel Yañez eta Tolosaldeko hainbat zinegotzi izan ziren. Horiakin batera, PPren Batzar Nagusietarako hautagaia den Regina Otaola ere izan zen. Guztiz gatzeleraz egindako mitinean lehenik Yañez hasi zen, han zehar denek eskerrak emanez, eta hiru egunetan zehar egindako gose greba egin zuela gogoratu. Mitinean azpimarratu zuena eta eskatu zuena «askatasunean bizi ahal izatea» izan zen.

Ondoren, Regina Otaolak hartu zuen hitza, «San Isidro eguna aprobetxatuz, nekazaritzari eta lehen sektoreari eman nahi» dioten bultzadaz hitz egin. Lehen sektorean sortutako produktuak ezagutzera emateko kanpainak egingo litzuketela adierazi zuen, «Tolosan, Gipuzkoan eta Espainia guztian». «PPk Foru Diputazioak arazo errealei kasu egitea» nahi du, adierazi zuen, Lizartza aipatu aurretik: Egibar «ETAren jarraitzaileen presiopean» dagoela adierazi zuen, besteak beste. Mitinean zehar ez zuten ilegalizazioari buruz hitz egin. Ondoren, piruletak eta herri programa banatzen hasi ziren herritarren artean, eta segidan, Alde Zaharrera abiatu ziren.

## ANOETA ▶

## «Arrakasta» izan du Ezker Abertzalearen Aldeko Eguna

Larunbatean egin zuten, eta giroa eta parte-hartzea azpimarratu dituzte

## ERREDAKZIOA

Larunbatean Anoetan Ezker Abertzalearen Aldeko Eguna egin zuten, eta antolatzaileen arabera, «oso arrakastatsua izan zen eta parte-hartzea oso zabala izan zen egun guztian zehar». Eskerrak eman nahi izan dituzte bertan parte hartu zutenei eta antolakuntzan aritu zirenei, «denon laguntza gabe ezinezkoa izango baitzen egun hau antolatzea».

Lehenik gau guztian txekorra erretzen aritu ziren. Herriko pilotarien partidak burutu ziren, Euskal Selektzioaren aldeko aldarria egin zutelarik. Goizean zehar azokara ere jende ugari inguratu zen, bertan herriko produktuez gain abere eta animalia erakusketa zabala izan zelarik. Ondoren, ekitaldian egungo egoera eta hauteskundearen inguruko irakurketa burutu zuten eta aurretik txalapartari eta trikitilariak saioa egin zuten. Ekitaldian, hurrengo hauteskundeetarako Anoetako EAEren zerrenda aurkeztu zuten, bere aldeko botoa eskatuz.

Ondoren, txekor jatera, 150 lagun inguru joan ziren, herritarren artean erretako txekorra dastatzera. Bertso poetea eta erromeria burutu zituzten gero. «Aipatzekoa azken honen arrakasta, giro aparta sortu baitzuen».

## BI HITZETAN ▶ JON ANDER UBEDA (MUSIKARIA)

## «Udalaren kontrolpean ez dagoena errespetatzen jakin behar da»

**Nerea Urbizu** ▶ Deabruak teila-tuetan tadean aritutakoa eta Bide ertzean taldean jotzen duen Jon Ander Ubeda baxujolea, Joni Ubeda izenarekin ezagunagoa den musikariak (Tolosa, 34 urte) bere esparruaren aldetik iritzia eman du. Musika eta kultura jorratzen ditu, eta Udalaren kontrolpean ez dagoena errespetatu egin behar dela defendatzen du.

**Zer-nolako balorazioa egiten duzu Tolosako Udalaren azken lau urteotako agintealdira?**

Alde batetik, kulturalki, 750 Fundazioeko eragileen fedean onesten dut. Tolosa mapan kokatzeko ahalegina idea ona da. Alde horretatik, herriari ere sona ematen dio Bonbereneak. Alde sozialari dagokionez, hiri perfektua iru-

dikatu nahi dute eta zelofanaren atzean drama txiki asko dago: horiek ezin dira estali. Eta hirugarrenik, politikoki, herritar asko gustuko ordezkariak aukeratu ezinik geratu zen eta hori larria da. Modu honetan, hankamotz dago, kasu honetan, Tolosako Udala. **Oro har, zer eskatuko zenioke hurrengo Udalari?** Udalari baino, agintaldi be-

rriari zera eskatzen diot: gas-tuaren kontrola, gizarte zerbitzu-erarako eta auzo-erarako gehiago bideratzeko. Funtzionarioren kontrola, lanean finak direnak saritzeko eta alferrak direnak zigortzeko. Herritarren parte-hartzea, konforme daudenean txalotzeko eta aurka daudenean txistu egiteko. Politikoei bi hauek behar dituzte, txaloak eta txistuak.

**Zure esparrutik, zer nabarmendu nahiko zenioke Udalari?**

Udalaren kontrolpean ez dagoena errespetatzen jakin behar da.

## DATUA ▶

115

**Webgunean.** Dira guztira alkatezarako hautagaiak bi eskualdeetan: 109 Tolosaldean eta 6 Leitzaaldean. 30 herrietatik 29 herritan PP aurkeztuko da, eta batean CDN (Areson). EAEko 19 zerrenda daude guztira, eta Abertzale Sozialistak alderdiko 16. Informazio gehiago nahi izanez gero, [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info) webgunean zerrendaburuak izango dituzu ikusgai.

## TRIATLOIA ▶

Eibarrekoan  
Urizar garaile  
eta Zalakain  
bigarren Elchen

Asteburu probetan oso ongi ibili dira Tolosaldeko Triatloi Taldeko kirolariak

## ERREDAKZIOA

Ongi hasi dute Tolosaldeko Triatloi Taldekoek maiatza. Eibarren eta Elchen (Espainia) jokatuak probetan aurre aurrean aritu baitira. Eibarren maiatzaren 5ean distantzia motzeko duatloia jokatu zuten. 166 partaide izan ziren bertan; aurrekoan ez bezala oraingoan, eta aurretan jada bigarren aldiz, Patxi Urizarrek (Kraff-Aletiko) irabazi zuen lasterketa. Honek, bigarren sailkatuari 37 segundo atera zizkion. Luis mari Urizar (Kraff-Aletiko) zortzigarren izan zen. Ibon Gonzalez (Tolosaldeko TT) eta Aimar Agirresarobe (Kraff-Aletiko) 28 eta 29 postuetan iritsi ziren lasterketa guztia elkarrekin burutu eta gero. Ion Marin (Tolosaldeko TT) 83. izan zen eta Aitor El-duaien (Tolosaldeko TT) 94. postuan heldu zen.

Elchen jokaturiko triatloian ere emaitza onak lortu zituzten Tolosaldeko kirolariak. Maiatzaren 6an B distantziako triatloian hartu zuten parte (3.000m-80km-20km) eta Egoitz Zalakain (Kraff-Aletiko) bigarren sailkatu zen eta Aitor Tejeria (Lagunak SM), berriz, 14. Biek ala biek sasoiako daudela erakutsi zuten. Kontuan izan behar da proba hau Espainiako Distantzia Luzeko Koparako baliagarria zela eta ondorioz maila handiko partaideak izan zirela bertan. Hurrengo hitzordua Gorlizen izango dute distantzia sprint-eko triatloian.

## ARETO FUTBOLA ▶

Asteburu honetan  
abiatuko dute Tolosa  
Kup Futbol Txapelketa

Larunbat eta igande arratsaldeetan jokatuko dituzte partidak; finala ekainaren 23an izango da, San Joan bezperan



Joan den urtean bezala, finala Usabal kiroldegian jokatuko da. E. EZEIZA

## ESTI EZEIZA

Asteburu honetan abiatuko da Tolosa Kup Areto Futboleko Txapelketa. Larunbatean hasi eta ekainaren 23ra arte 19 talde ariko dira lehen. Aurreko edizioetan bezala, futbol partidak Uzturpe pilotalekuan jokatuko dituzte larunbat eta igandean arratsaldeetan.

Parte hartuko duten taldeak lau multzotan banatuta daude eta ligaxka sistema erabiliz, lehendabiziko fasean denak denon aurka ariko dira. Hemen lorturiko emaitzen arabera talde batzuk kanpoan geratuko dira, eta ekainaren 17an final-laurdenak jokatuko dituzte. Hurrengo egunean, hau da, ekainaren 18an finalerdiak izango dira. Azkenik, Sanjoanetako Koadrilla Egunean finala jokatuko dute. Honen ondoren, ohikoa den bezala bazkaria eta festa izango da.

Joan den urtean bezala, txapelketaren egutegia eta arau-

dia parte-hartzaileen artean adostu dute. Hala, 16:00etan hasi eta 45 minutuko tartearekin lau edo bost partida jokatuko dituzte arratsalde bakoitzean. Araudiari dagokionez, asteburu bakoitza talde batek antolatuko du, eta arbitrajeaz ere jokalariek arduratuko dira. Partida bakoitzak 40 minutu iraungo du eta zati bakoitzean hiru falta bakarrik egin ditzazkete.

## Asteburuko partidak

Larunbat arratsaldean A eta B multzoko zortzi talde lehiatuko dira. Hurrengo egunean berriz, C eta Dko beste horrenbeste. Txapelketako lehendabiziko partida, 16:00etan jokatuko den Red Hots eta Sin salusen artekoa izango da. 16:45ean berriz, Bar Gaztelubide eta Hirugarrengoan bai-ren txanda izango da. 17:30ean Oargi tipi ttapa eta Plaza Cristales lehiatuko dira. Amaizteko, eguneko

## TOLOSA KUP ▶

## A TALDEA

- ▶ Red Hots.
- ▶ Sin salus.
- ▶ Bar Gaztelubide.
- ▶ Hirugarrengoan bai.

## B TALDEA

- ▶ Oargi tipi ttapa.
- ▶ Plaza Cristales.
- ▶ Bikutz.
- ▶ Amaro.
- ▶ Ur.

## C TALDEA

- ▶ Uzturre club.
- ▶ Sanberoak (igandetan).
- ▶ Alegiko Gaztetxea.
- ▶ Katxuli askatu.
- ▶ Basajaunak.

## D TALDEA

- ▶ Txikiteroak.
- ▶ Ekaitz.
- ▶ Itaie.
- ▶ Itzuli taberna.
- ▶ 30 xentimo.

azkena Bikutz eta Amarozek jokatuko dute. Jardunaldi hauen guztien kontrolaz Red Hots arduratuko da.

Igandeko saioak ordu berdinan jokatuko dituzte eta hauen kontrolaz Uzturre Club arduratuko da. Lehenengo Uzturre Club eta Sanberoak (igandetan)-en artekoa izango da. Ondoren Alegiko Gaztetxea eta Katxuli askatu ariko dira. Hurrengo lehia Txikiteroak eta Ekaitzen artekoa izango da. Bukatzeko, asteburuko azken partida Itaie eta Itzuli tabernaren artekoa izango da.

## XAKEA ▶

Tolosa-Ibarra A  
taldea garaile  
Infantako  
Kutxa Sarian

Hilaren 26an, Berdura Plazan xake azkarreko Tolosako Txapelketa jokatuko dute

## ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan Kutxa Xake Txapelketako infantil mailako probak hasi zituzten Donostian. Bi txanda jokatuko zituzten eta bietan Tolosa-Ibarra A taldeak 3-1 irabazi zuen.

Tolosaldeko taldeko Oihana Etxeniketik eta Befiat eta Jon Salbarredik irabazi zuten. Emaitza hauei esker taldea multzoko lehen postuetan hasi da, finalerako bide ezin hobean. Bitartean, Beasainen, alebinek bigarren saioa irabazi zuten. Hauek partida bakarra jokatuko zuten. Tolosa-Ibarra B-k 4-0 irabazi zuen eta multzoko lehen postuan jarraitzen dute. Aitor Villena, Eneko Maiz, Ione Mujika eta Ane Salbarredik lortu zituzten puntuak. Tolosa-Ibarra C taldeak bina berdindu zuen. Hauek ere lehen postuan jarraitzen dute baina beren multzoko sailkapena asko estutu da eta azken txandara arte borrokan jarraitu beharko dute finalerako sailkatzeko. Unai Mendizabal eta Mikel Aretxagak lortu zituzten taldeko puntuak.

Bestalde, beste behin ere, hil honen 26an, larunbata, xake azkarreko Tolosako Txapelketa jokatuko dute. Berdura Plazan izango dira norgehiagokak, arratsaldeko lauetatik aurrera. Hori dela eta, jardunaldien antolatzaileek eskualdeko xake zaletu guztiei bertan parte hartu eta lehiatzeko gonbita luzatzen diete.

**Higiezin Agentzia**  
Pablo Gorosabel 40  
1. solairua • 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 368 994

**Amasa.** 124m2ko bi etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti.

**Alegia.** Azken bi moduloak, 350 m2koak. Kokapen aldetik ezinhobe.

**Anoeta.** Harritzko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

**Anoeta.** Etxebizitza kanpoalderra, berria, garajearekin eta altzairuekin.

**Belauntza.** 350 m2ko pabilioia alokairuan, instalaturik.

**Betelu.** Hiru logelako etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, bi komun, terraza, altzairuekin, bikaina.

**Berrobi.** Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.

**Legorreta.** Landa lurren 3 hektarea salgai.

**Lizartza.** Etxe bifamiliarr batentzako lurra eta

abeltzaintzarako ustiaketaekin salgai.

**Tolosa.** San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.

**Tolosa.** Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. Hiru solairukoa.

**Tolosa.** San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

**Tolosa.** Berazubi. Etxebizitza eraberritua, laugarren solairua,

igogailua jartzeko proiektua martxan.

**Tolosa.** Pedro de Tolosa. 122 m2ko etxebizitza, garajea eta trastelekua.

**Tolosa.** Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m2ko etxebizitza.

**Tolosa.** Maituna zaharra. Azken garaje itxiak, 30m2tik aurrera.

Karga jasogailuekin sartzeko. Lanak laster hasiko dituzte.

TOLOSA ▶

**Idoia Bengoetxea saridun Urruzuno Lehiaketan**

Urtero bezala gaztetxoek parte hartzen duten Urruzuno Literatur Lehiaketako irabazleak zein izan diren jakitera eman berri dituzte, eta bada eskualdekorik irabazlearen zerrendan. Hain zuzen ere, Laskorain Ikastolako Idoia Bengoetxea Otegi tolosarra izan da poesia arloan eta A kategorian irabazle suertatu dena. *Hiriaren tau-padaz* lanarekin aurkeztu zen Idoia Bengoetxea eta epaimahaia bere lana saritu du.

MERKATARITZA ▶

**Merkataritzarako lan poltsa sortzen lanean**

Tolosako Merkataritza Foroa merkataritzarako lan poltsa sortzeko ari dira lanean, sektore honetan lan egiteko interesaturik dauden pertsonen izenak jaso eta langileak kontratatu behar dituzten merkatariek bertara zuzendu ahal izateko helburuekin. Pertsonak kontratatzea behar duten edo beharko duten eta praktikak egitea eskaintzen duten Tolosako merkatariei Tolosaldea Garatzenekin (943 65 45 01) harremanetan jartzea eskatzen zaie.

ALEGIA ▶

**Kirol hilabetean, mendia eta pilota**

Bihar Alegiko maiatzeko egitarauari jarraipena emanez, proiektio interesgarri bat izango da: *Euskal mendizale-tasunaren aitzindariak* (Antxon Iturriza), 19:30ean eta Kultur Etxeko batzar aretoan. Udala izan da antolatzailea. Larunbatean, berriz, Udaberrirako torneo eta HITZA Txapelketa izango dira 16:00etatik 20:00etara bitarte, pilotalekuan. Antolatzailea Intxurre pilota eskola izan da. Goierrri, Intxurre, Aurrera Saiaz eta Ataun ariko dira.



lazio HITZA Txapelketa. I. GARCIA

IRURA ▶

**Ipuin kontaketa eta odol emateari buruz hitzaldia**

Irurako aurtengo Kultur Asatearen baitan, bi ekitaldi antolatu dituzte gaurkoan. Batetik, 17:30ean, *Mari Lurrek 5.730.622 ipuin dakizki* ipuin kontaketa saioa izango da. Emanaldi hau, liburutegian izango da ikusgai eta lau eta bederatzirte bitarteko gaztetxoek zuzendua dago. Bestetik, 19:00etan hasita, Sabin Urzelaireren hitzaldia izango da, *odol-emateak Gipuzkoan* gaiaren inguruan. Ikastolan eskainiko du hitzaldia Urze-laik.

TOLOSA ▶

**Araxesko Mendi Itzulia ekainaren 3an egingo dute**

Amarozko auzo elkarteak VIII. Araxesko Mendi Itzulia antolatu du, bi urtetik behin egiten duen modura. Mendi itzulia ekainaren 3an, igandean izango da, eta 9-11 orduko iraupena du. Mendi ibilaldi honetan parte hartu nahi duenak dagoeneko izena eman lezake (ordaindu gabe). Izen abizenak eta herria adierazi beharko dira 637 18 77 48 (Jose Luis) zenbakian, edo helbide elektronikoa honetara mezua bidali: [auzoetxe@kzgunea.net](mailto:auzoetxe@kzgunea.net).

MERKATARITZA ▶

**Merkatarientzat diru laguntzak**

Eusko Jaurilaritzak, SPRIn bitartez, AFI 2007 Programa argitaratu berri du. Aurtun, beraien dendetan gutxienez 30.000 euroko inbertsioa egin behar duten merkatariei zuzenduta dauden diru laguntzak erregulatzeko bertan. Diru laguntzak eskatzeko zenbait baldintza bete behar dira eta epe batzuk daude. Laguntza hauei buruz informazio gehiago nahi duten merkatariek 943 16 06 73 edo 943 67 52 24 zenbakietara dei dezakete.

TOLOSA ▶ KULTURA

**Arianna Puelloren kontzertua eta bertso saioa, Bonberenean**

Etzi izango dira bertsolariak taula gainean, eta hip-hop doinuak, berriz, larunbatean; biak 22:30etik aurrera



Arianna Puella hip-hop eta rap musikaria. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Hilabete honetan Bonberenea sortu zela 10 urte betetzen dira, eta hori dela, egitarau oparora antolatu dute. Hala, pasa den astean zehar CD eta binilo azoka berezia jarri zuten azken 25 urteetan euskal musikak eman dituen rock talde ezberdinen diskak eskuragarri izan direlarik. Asteburu honetan, berriz, izango da zertaz gozatua, izan ere, etzirako bertso saioa antolatu dute, eta larunbaterako kontzertua.

Jon Maia, Unai Iturriaga, Jokin Uranga eta Amaia Agirre izango dira etzi bertsoan ariko direnak, eta gai jartzaile lanak Unai Muñoak egingo ditu. 22:30ean hasiko da emanaldia eta 5 euro ordaindu beharko dira sarrera bakoitzeko.

Larunbatean, musikak hartuko du protagonismoa, 22:30etik aurrera Arianna Puelloren kontzertua antolatu baitute Bonberenakoek. Dominikar Errepublikatik, bere azken singlea aurkeztera dator hip-hop eta rap munduan aski ezaguna den musikaria, bere taldeideekin batera. «Aipamen berezia» merezi duen kontzertua da, izan ere, mundu bira egiten ari da une honetan, eta Tolosakoa izango da momentuz Euskal Herriaren eskainiko duen kontzertu bakarra. Gai-

nera, ez da lehendabiziko aldian Bonbereneako taula gainean kontzertua eskaintzen duena, duela 3 urte, 2004an ere izan baitzen, eta kasu hartan bezala, «kontzertua jendetsua eta beroa» izatea espero dute antolatzaileek. Arianna Puelloren zuzenekora joan nahi dutenek 5 euro ordaindu beharko dute sarrera eskuratzeko.

«10 urte bizirik»

Oraindik ere ekitaldi ugari izango dira hilabete honen amaierara arte. Datorren astean Angel Navasek Alaskan eginitako espedizioari buruzko diaporama aurkeztuko du; Bide Ertzean eta Desordutan talde tolosarren kontzertuak, Pirritx eta Porrotxen emanaldia eta

Bonberenea Txarangaren saioa ere izango dira. Eta hurrengoan, berriz, sexualitateari buruzko mahai ingurua antolatu dute.

Bonbereneak izena eman zion suhiltzaileen etxetik orain kokatzen den etxera bi kokaleku izan ditu. 10 urte hauetan, funtzionamendurako ezarri zuten lehen baldintza autogestioa izan dute. Hala, etxeko azpiegiturak osatzeko erabilitako dirua antolatutako ekin-tzetatik eskuratua izan da, eta baita, Bonberenea ekintzak bezala ezagutzen diren proiektuak bultzatzeko ere. Dirua ez dute, helburu, «bitarteko, baikik». Gainera, Bonbereneak ez du inoiz diru laguntzarik eskatu, eta horrek «autogestioaz ikasteko» aukera eman die.

**Aramburu**  
**Liburutegia**

Solana kalea, 7  
Tel.: 943 67 23 12  
TOLOSA

GIZARTEA ▶

# Jai giroan ospatu dute baserritarren eguna Asteasun, Zizurkilen eta Iruran

Herri kirolak, idi pareta zaldiaren aurka eta erretiratuak jokoan ikusteko aukera izan zen San Isidro egunean



Idi pareta zaldiaren aurka lehian ikusteko aukera izan zen atzokoan, Asteasuko plazako proba lekuan. A.I.



Zizurkil Goian, aizkolariak eta harrijasotzaileak ikusi ondoren, Etxeberri jatebexean elkartu ziren. A. IMAZ

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Mantenu.** Langileak udalebeetarako. Interesatuak deitu: 943 44 48 66.

**Lorategietako.** Langileak, garbiketara, mantenua, postu libreak. 699 13 45 86.

**Muntairako.** Pertsona bat behar dugu ekitaldi muntaietarako. Dekoratuak, eszenatokia, aulkia jarri... Interesatuak deitu ondorengo telefonora 943 69 18 41 [lehenbailehen.](#)

**Sukaldaria.** Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

**Zerbitzaria.** Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. Interesatuak deitu ondorengo telefonoetara: 635 74 52 91/943 69 43 13.

### SALGAI

**Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu ondorengo telefonora: 615 75 57 62.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Eskualdeko 9 zerrenda, EAE-ANV eta ASko guztiak eta Alitzoko plataforma baliogabetu ditu azkenik Auzitegi Konstituzionalak. Zer iritzi duzu honen aurrean? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia. Horretaz gain gai honen inguruan jendeak idatzi duena irakurtzeko aukera izango duzu.

### ASIER IMAZ

Baserritarren eguna ospatu zuten atzo Euskal Herriko hainbat herritan. Eskualdean, besteak beste, Zizurkil, Asteasu eta Iruran ospatu zuten San Isidro. Ez zen ordea baserritarrentzat jai eguna izan, «baserrian ez baitago jairiko».

Meza, trikitixa, bertsoak, herri kirolak eta, batez ere, euskara garbia izan zen kaleetan atzokoan, eskualdeko hiru herri hauetan. Helduenak, igandeko arropa soinean zutela herrietako plazetan elkartu ziren, emakumeak emakumeekin eta gizonak gizonekin. Iruran, amonak toka eta bote jokoan jolasten ari ziren bitartean, aitona musean jolasten geratu ziren Zaharren Biltokian. Ondoren, joko trukea iritsi zen; batzuk biltokitik herriko plazara eta besteak mahai jokoetan lehiazteko biltoki barnera. Apaizak 19:00etako mezan elkartu zituen denak. Baserritarrei eginiko afariaren aurretik, herriko dantzariak izan zituzten ikusgai.

Asteasu eta Zizurkil Goian, elizkizunak goizen izan zituzten. Ondoren, bi herrietan herri kirolak izan ziren ikusgai, mahai inguruan, bertso eta trikiti kantuen inguruan elkartu aurretik. Asteasun Amets Arza-

llus eta Sustrai Colina lapurtarrak aritu ziren bertsoetan. Bazkal ostean, jai giroa nagusitu zen bi herrietan.

### Herri kirolak eta apustua

Asteasun apustua antolatu zuten atzo: «idi pareta zaldiaren aurka. Zeinek plaza gehiago egin 1.200 kiloko harriarekin 20 minututan». Hori bai, idi pareta 200 kilogramoko gehigarriarekin. Ordubatik inguruan hasi zen apustua, Zizurkil Goian aizkolariak lanean hasi ziren une berean. Hemen Alkizalete bi anaiek, Xabier eta Jokinek, Oihan Larretxea eta herriko Joseba Otaegi izan zituzten arerio. Azken hauek irten ziren garaile. Ondoren, harrijasotzaileen txanda iritsi zen; Aimar Irigoien eta Hodei Iruretagoiena, *Izeta IV.* ak hiru harri mota desberdinekin erakustaldia eskaini zuten.

Zizurkil Goian, bertara gerturatu zirentzat bazkaltzeko ordua iritsi zenean, Asteasun herriarrak zaldiari begira zententzen. Aurretik, Errezilgo bixkien idi pareak 46 plaza eta 5 zintako lana egin zuten. Herriko Olarra-Goiko zaldiak ordea, erraz gainditu zuen idien lana, guztira 51 plaza eta 2 zintako ibilbidea egin zuelarik 20 minutuko lanaren barneak.



Erretiratuak bote jokoan Iruran, atzo arratsaldean. A. IMAZ

LEITZA ▶ KULTURA

# Kultur Taldeak ekitaldi ugari antolatu ditu Kultur Asterako

XXIX. edizioa ekainaren 1ean hasiko da mendi irteera batekin eta 10ean amaituko da, ESAIT eguna delakoarekin

NAIARA GARZIA

Kultur Astearen XXIX. edizioa izango da aurtengoa eta Kultur Taldeak ekitaldi guztiak dagoeneko lotu ditu, nahiz eta batzuk erabat zehaztu gabe egon. Mendi irteera, artisau azoka eta Leitzako ihote zaharren inguruko erakusketa, dira, besteak beste, antolatu dituzten ekitaldiak. Tokiak eta orduak ere oraindik zehazteko daude.

## EKAINAK 1, OSTIRALA

**Mendi irteera.** Goizean Mendi Taldekoek haur eta gazteen-tzako mendi irteera antolatu dute.

**Bertsotranpak.** 20:00a aldera *Bertsotranpak* izeneko ekitaldia izanen da zinemaren, besteak beste, Ander Lipus eta Andoni Egafiarekin.

## EKAINAK 3, IGANDEA

**Artisau azoka.** 09:30etik 13:30era, artisau azoka jarriko dute urtero bezala plazan.

**Talo-egileak.** Arratsaldean talo-egileak egonen dira plazan. Txaranga egonen den zehazteko dago.

## EKAINAK 4, ASTELEHENA

**Mahai ingurua.** 19:30 edo 20:00a aldera Aurreran Leitzako ihote zaharren inguruko aurkezpen-mahai ingurua.

**Erakusketa.** Asteazken zurrerren argazki zaharren inguruko erakusketa egonen dela ikusgai udaletxean azaldu dute antolatzaileek.

## EKAINAK 5, ASTEARTEA

**Diapo emanaldia.** Arratsaldean,



2006. urteko Kultur Astearen, Artisau Azoka. M. SOROA

an, 20:00a aldera Mendi Taldekoen eskutik diapo emanaldia egonen da. Tokia zehaztu gabe dago.

## EKAINAK 6, ASTEAZKENA

**Jose Mari Esparzaren hitzaldi-mahai ingurua.** Aurreran egingo da ziurrenik, baina oraindik zehazteko dago. Jose Mari Esparza Txalaparta argitaletzeko editorea da eta iaz, Durangoko azokarako *Cien razones por las que deje de ser español* liburua kaleratu zuen.

## EKAINAK 7, OSTEGUNA

**Apaiac obeto.** 20:00 aldera, Peritza tabernan, Jon Maiaren *Apaiac obeto* espedizioaren emanaldi ikus-entzunezko emanaldia.

## EKAINAK 8, OSTIRALA

**Gerra Zibilaren inguruko hitzaldia.** 20:00etan Nabarraldearen eskutik 1936. urteko gerra eta memoria historikoaren inguruko hitzaldi-mahai ingurua. Konfirmatu gabe dago baina seguraski Tomas Urzainkik eskainiko du.

## EKAINAK 9, LARUNBATA

**Gazte Eguna.** Atebabelekoe-kin batera egingen da. Arratsaldean jokoak izanen dira, gero seguraski kalea alaitzeko talderen bat, iluntzean urtero bezala afaria karrapen eta ondoren, kontzertua Gaztetxean.

## EKAINAK 10, IGANDEA

**ESAIT eguna.** Goizetik hasita hainbat ekintza izanen dira haur zein helduentzat.

LEITZA ▶ HERRI KIROLAK

## Rekondok ez du helduen mailan sailkatzerik lortu

Helduen mailako finalerdietarako sailkatu ez den arren, gazteen finalerdian ariko da

N. GARZIA

Igandean Leitzako pilotalekuan Jon Rekondok ez zuen finalerdietarako sailkatzerik lortu, Arria V.ak irabazi baitzuen. Rekondok 23 minutu eta 44 segundo behar izan zituen 24 enborrak mozteko, eta Arria V.ak, berriz, 20 minutu eta 36 segundo.

Honekin batera hiru izan ziren igandean Amazabal pilotalekuan jokatu zituzten kirol ekitaldiak. Harri-jasotzaileei dagokionez, Ostolaza eta Zelailuze Telleria eta Urrutiaren aurka lehiatu ziren. Ostolaza eta Zelailuze izan ziren irabazleak, 10.848 kilorekin. Telleria eta Urrutiak, berriz, 9.546 kilo altxatu zituzten.

23 urtetik beherako aizkolarien finalerdiari dagokionez,

Ugaitz Mugerza Xabier Mindegia gailendu zitzaion 12 minutu eta 39 segundorekin. Mindegia 14 minutu eta 17 segundo behar izan zituen 14 enborrak mozteko.

2007. urteko Urrezko Harri-jasotzaile eta Aizkolarien Txapelketa ez da ordea hemen amaitu. Finala Azpeitian jokatuko dute, ekainaren 3an, baina lehenago, larunbat honetan bertan, Leitzako Amazabal pilotalekuan Eliteko Aizkolarien finalurrekoa jokatuko dute, 20:00etan. Honetaz gain, Rekondo Atutxaren aurka ariko da 23 urtetik beherako finalurrekoan eta Urrutia-Telleria harri-jasotzaileak Ozeta III.a-Eizmendiren aurka lehiatuko dira.

LEITZA ▶ PILOTA

## Oinatz Bengoetxea Buruz-Burukotik kanpo

Sebastien Gonzalez zen faboritoa eta aurreikuspenek ez zuten hutsik egin

N. GARZIA

Oinatz Bengoetxeak ez zuen larunbatean Zarauzko Arizbalden Sebastien Gonzalez gailentzerik lortu, eta Buruz-Buruko Txapelketatik kanpo gelditu da.

Apustuak lapurditarren alde ateratu ziren, eta aurreikuspenek ez zuten hutsik egin. Gonzalezek hasieratik alde nabarmena ateratu zion leitzarriari, eta hirugarren urtez ja-

rraian, finalerdietarako sailkatu da. 11 tanto ateratu baitzizkion Bengoetxea VI.ari. «Itxaropena beti izaten da, partida baino lehen irabaztea posible ikusten nuen. Gonzalezek partidu serioa jokatu zuen eta pilotari indarra eman zion. Ez zidan utzi nire jokoa egiten», dio leitzarriak. Bengoetxea VI.a Buruz-Burukotik kanpo gelditu den arren, hurrengo Naturgas Txapelketaren barruan jokatuko du, binaka.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Berastegi.** Hilaren 20ean izango da Basurde elkarteak antolatu duen XV. Ibilaldi Neurtua, 07:00etan herriko plazatik, 6-8 orduko iraupenarekin. 5 kontrol eta 3 zerbitzu leku egongo dira. Partaide gutzietako diploma emango diete, besteak beste.

**Irura.** Kultur Astearen baitan, odol-emateari buruzko hitzaldia egingo dute ikastolan 19:00etatik aurrera.

**Tolosa.** 18:30ean, Usabalgo Areto Nagusian Kike Amonarriz filologoak eta Ikastolaren lehendakariak, hitzaldia emango du. Gurasoek seme-alabaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan izan behar dugun partaidetza hitz egingo du eta euskara ez dakitenek prozesu honen jarraipena eta seme-alabei laguntza eman ahal izateko zenbait jarraibide eskainiko ditu.

**Tolosa.** Felix Yarzaren omenezko pintura lehiaketa antolatu du hirugarren urtez Txinparta elkarteak datozen sanjoanetarako. Izene-ematea, maiatzaren 31 baino lehen elkartearen bertan.

**Zizurkil.** Bertso eta musika afaria Eñaut Agirre eta Amaia Agirre eta Jexux M<sup>a</sup> Irazu bertsolariekin 19an 21:00etan Zentroan. Txartelak salgai 15 eurotan Zentroan eta Aurrera tabernan.



**Orduntera mendi zeharkaldia antolatu du Aizkardik**

**VILLABONA ▶** Zalama-Ordunte mendi zeharkaldia antolatu du Aizkardik iganderako. Mendilerro hau Burgos (Espainia) eta Bizkaia arteko mugan dago, bai eta Santanderrekin (Espainia) ere. Ibilaldia San Pelayo De Montija (800 m.) herriatik abiatuko da, Zalama herrira igoz (1.336m.). Menako bailara, Soba eta Karrantza arteko mugarria igaro ostean. Iparraldia jarraituz, Lamana (1.202 m.) igaroko dute eta Ordunte izenarekin ere ezaguna den Balgerri igoko dute, (1.106m.). Kolutatik pasako dira (879m.) San Sebastian ermita bisitatu. Bertatik Balmasedara jaitsiko dira (146m.) Pandozales auzora. Ibilaldiak 6 ordu eta erdiko iraupena izango du, 28 kilometro inguru egingo dituztelarik. Irteera honetan parte hartzeko 943 694458 telefono zenbakian eman dezakete izena interesatuek —Joxan—, edo Aizkardi elkartearen bertan. Bihar izango da izena emateko azken eguna. Olaederratik abiatuko dira 06:30ean. HITZA



**ZINEMA**

**Zizurkil.** *Mozarten txakurra* filma emango dute Zizurkil, Maiatza Saltsan programazioaren barruan.

**Alegia.** John Cameronen *Shortbus* (2006) filma izango da (AEB) 21:30ean Gaztebean. Istorio tragikomikoak gertatuko dira, sexualitatea eta sentimenduak tartekatuz. Sofia sexologia izango da honen guztiaren mamia.

**Tolosa** *Alhucema, ciudad de espera* dokumentala eta Euskadiko marokiarren elkarteko Jatabiren hitzaldia Kultur Etxean 19:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi ebea. 112.  
**Tolosa.** Etxebeite, J.M. Gemikako arbola, 3. 943 651040.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
**11:00-14:00.** Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
**18:00-20:00.** Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
**20:00-21:00.** Iraulituhinak.  
**21:00-23:00.** Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URREZKO EZTEIAK!**  
 Zorionak zuen seme-alaba eta biloben partetik.

Jaia Laia eta berriaren eskutik  
**Fermin Muguruzak** prestatutako musika bilduma bikaina

Gaztetxoak eta helduak  
 Elkarrekin dantzatzen

**'Musika Munduko Jolastokian'**

EUSKAL HERRIA: J.Perez Flannery eta bere estakiloak  
 JAMAICA: Ceeley Marley-Booker with Toy Mohai. 'Smivi' island of song  
 EUSKAL HERRIA: Joxe Muguruzak. Ju, ju  
 LISBOA: The Beatles songs. All you need is love  
 KUBA: Leo María Rivas. Travesía mágica  
 HEGOFARIKA: Ladysmoth. Book. Mombasa. Gift of the tortoise  
 NEW ORLEANS: Buckwheat Zydeco. Chou chou bougoulo  
 MEXIKO: Los Lobos with Lalo Guerrero. Papi's dream

**Maiatzaren Setik aurrera larunbatero disko bat kioskoan**

+ 5,30 €

berria